

Juan Mandiola Bidaguren Asuntze *Mallabia, Bizkaia (1941-2008)*

Aurkibidea

Biografia

Mallabiko "Asuntze" baserrian jaio zen 1941ean. Jose eta Teresaren ume-bikotetik nagusia izan zen Juan. Beraienean, betidanik egon izan zen abesti eta bertsoetarako joera eta dohaina. Patxi Mandiola bertsolaria beren osaba zen; eta osaba Jose Domingoren altzoan, bideak elurtuta zeudela eta erromeriara jaisterik ez zutenean, makina bat abesti entzundakoak dira anai-arrebok, belaun banatan jarrita. Juan bera ere gaztetan bertso-kantatzen ibilitakoa da, inguruko erromeria egunetan eta domekatan, lagunak aldran DKV zahar baten joan-etorria egiten zutenean. Bere akorduz: "Guk gure kaxetakuek botatzen genduzen, berezko huts-hutse zan gurie". Elena Cengotitabengoa Arietaleanizbeaskoa elorriarrarekin ezkondu eta seme bat izan zuten. Sallabente auzoan pulimentu-tailertxo bat izan zuen, baina hari laga eta baserriko lanari ekin zion berriro. Ermuan bizi arren, mallabitarrera da bere berbeta. Bere esana gogora ekarrita, "urtiek ez dielako hutsan baixen pasatzen!"; 67 urterekin laga zigun. Ermua eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkariaren 117. alean, 2004ko urrian kaleratutako artikuluan, jasota dator gizon hau hobeto ezagutzeko beta ematen duen "Boteprontoan" galdera-erantzuna.

Zintak

MAL-050

- **Proiektua:** Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2004-10-16
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com